# I ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak*

**3.348**

**5/2006 ZERGA-PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, maiatzaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, minusbaliatuen garraioan erabilitako ibilgailu kontzeptuaren aldaketa, apirilaren 24ko 6/2006 Legeak jasotakoa, Arabako Lurralde Historikoko zerga-araudira egokitzen da.**

Apirilaren 24ko 6/2006 Legea onartu eta argitaratzeak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu du, azken lege horretan jasotako minusbaliatuen garraioan erabilitako ibilgailu kontzeptua argitzeko eta, ondorioz, Balio Erantsiaren gaineko Zergan aldaketak egiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 26. artikuluan ezartzen duenez, Balio Erantsiaren gaineko Zerga tributu itundua da, estatuak une bakoitzean ezartzen dituen eduki eta forma arau berberei jarraituta arautuko dena.

Horrek guztiak beharrezkoa egiten du aipatutako legean zerga horien inguruan sartu diren aldaketak Arabako Lurralde Historikoaren zerga araudira ekartzea.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena ikusi da.

Horiek horrela, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan eztabaidatu ondoren, Arabako Zergei buruzko maiatzaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikuluak eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak foru aldundiari aitortzen dizkioten eskumenak baliatuz, premiazko arrazoiengatik, ondokoa

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.- Honako aldaketa egin da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuan:**

**Bat.** 91.bi.1.4 artikulua aldatu da. Hona hemen artikulu hori hitzez hitz:

“4.- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskinaren 20. puntuan adierazitako mugikortasun murriztuko pertsonentzako ibilgailuak (Ibilgailuen Araudi Orokorra onartzen duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren II.A eranskinak emandako idazketa) eta pertsona minusbaliatuek erabiltzeko gurpildun aulkiak.

Gurpildun aulkian dauden minusbaliatuak garraiatzeko egokitu aurretiko eta egokitu ondorengo autotaxi eta autoturismoak eta gurpildun aulkian dauden edo mugikortasun murriztua duten minusbaliatuak garraiatzea ohi duten motordun ibilgailuak, egokituta egon ala ez eta gidaria nor den gorabehera.

Aurreko ahapaldian aipatutako ibilgailuei zerga murriztua aplikatzeko, ezinbestekoa izango da erosleari aldez aurretik eskubide hori aitortzea. Erosleak ibilgailua zertan erabiliko duen zuritu beharko du.

Arau honi dagokionez, minusbaliatu da ehuneko hogeita hamahiruko minusbaliotasuna edo handiagoa duena. Minusbaliotasun gradua Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo dagokion organo eskudunak emandako agiri edo ebazpen bidez egiaztatuko da.”

**Bi.** 91.bi.2 artikulua aldatu da. Hona hemen artikulu hori hitzez hitz:

“2. Paragrafo honetako 1.4 ahapaldian aipatutako ibilgailu eta gurpildun aulkien konponketaz arduratzen diren zerbitzuak eta minusbaliotasunen bat dituzten pertsonentzako autotaxiak eta autoturismoak eta manu bereko bigarren ahapaldiko motordun ibilgailuak egokitzen dituzten zerbitzuak, gidaria nor den gorabehera.”

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Normativos de Urgencia Fiscal*

**3.348**

**DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 5/2006, del Consejo de Diputados de 23 de mayo, que adapta a la normativa tributaria alavesa la modificación del concepto de vehículo destinado al transporte de personas con minusvalía, introducido por la Ley 6/2006, de 24 de abril.**

La aprobación y publicación de la Ley 6/2006, de 24 de abril, de modificación de la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, para la clarificación del concepto de vehículo destinado al transporte de personas con minusvalía contenido en la misma Ley, ha supuesto la introducción de modificaciones en el Impuesto sobre el Valor Añadido.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma Vasca, aprobado por Ley 12/2002, de 23 de mayo, en su artículo 26, establece que el Impuesto sobre el Valor Añadido tiene el carácter de tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado.

Ello exige incorporar a la normativa fiscal del Territorio Histórico de Álava las modificaciones incluidas en la citada Ley.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 8 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, por razones de urgencia,

DISPONGO:

**Artículo Único.- Modificación del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.**

**Uno.** Se modifica el artículo 91.Dos.1.4º, que queda redactado como sigue:

“4.º Los vehículos para personas con movilidad reducida a que se refiere el número 20 del Anexo I del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, en la redacción dada por el Anexo II A del Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General de Vehículos, y las sillas de ruedas para uso exclusivo de personas con minusvalía.

Los vehículos destinados a ser utilizados como autotaxis o autoturismos especiales para el transporte de personas con minusvalía en silla de ruedas, bien directamente o previa su adaptación, así como los vehículos a motor que, previa adaptación o no, deban transportar habitualmente a personas con minusvalía en silla de ruedas o con movilidad reducida, con independencia de quién sea el conductor de los mismos.

La aplicación del tipo impositivo reducido a los vehículos comprendidos en el párrafo anterior requerirá el previo reconocimiento del derecho del adquirente, que deberá justificar el destino del vehículo.

A efectos de esta Norma, se considerarán personas con minusvalías aquéllas con un grado de minusvalía igual o superior al 33 por 100. El grado de minusvalía deberá acreditarse mediante certificación o resolución expedida por el Instituto de Migraciones y Servicios Sociales u órgano competente correspondiente.”

**Dos.** Se modifica el artículo 91.Dos.2 que queda redactado en los siguientes términos:

“2. Los servicios de reparación de los vehículos y de las sillas de ruedas comprendidos en el párrafo primero del número 1.4º de este apartado y los servicios de adaptación de los autotaxis y autoturismos para personas con minusvalías y de los vehículos a motor a los que se refiere el párrafo segundo del mismo precepto, independientemente de quién sea el conductor de los mismos.”

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.- Indarrean izatea.**

Xedapen honek Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta 2006ko apirilaren 26tik aurrera ondorioak.

**Bigarrena.- Gaitzea**

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren bestelako xedapenak emateko.

**Hirugarrena.- Biltzar Nagusietara bidaltzea.**

Zerga-Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Biltzar Nagusietara bidaliko da baliozkotu edo ezezta dezaten, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 23a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.- Entrada en vigor.**

La presente disposición general entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos a partir del 26 de abril de 2006.

**Segunda.- Habilitación.**

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

**Tercera.- Remisión a Juntas Generales.**

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, 23 de mayo de 2006.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**3.231**

**371/2006 ERABAKIA, maiatzaren 16ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da Arabako Foru Aldundiak erakunde hauetan duen ordezkaritza: Foru Mutuako Gobernu Batzarra eta Batzorde Nagusia, Aldundiaren Elkarkidetza Pentsio Planen Kontrolerako Batzordea eta Elkarkidetzako Batzar Nagusia.**

Lourdes Martínez de Lagos Manzana andrea Giza Baliabideen Zerbitzuaren buru izendatu denez gero, bidezko da zenbait organo eta elkartetako kide ere izendatzea elkarrekin duten zerikusiarengatik.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8. artikuluaren 9. eta 10. paragrafoetan xedatutakoa kontuan izanik, Diputatuen Kontseiluari dagokio bere ordezkariak hautatzea batzorde, organismo eta erakunde publiko zein pribatuetarako.

Horregatik guztiagatik, diputatu nagusiak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Joaquín Erviti Ortiz jaunaren ordez Lourdes Martínez de Lagos Manzana andrea izendatzea ondoren aipatzen diren organismo, sozietate eta erakundeetarako (Erakundeen Erregistroan duten hurrenkera zenbakia adieraziko da). Hona horiek:

82.- ARABAKO FORU ALDUNDIAREN MUTUAKO GOBERNU BATZARRA.

89.- ARABAKO FORU ALDUNDIAN ELKARKIDETZA PENTSIO PLANA KONTROLATZEKO BATZORDEA

94.- ARABAKO FORU ALDUNDIAREN MUTUAKO BATZORDE NAGUSIA.

95.- ELKARKIDETZAKO BATZAR NAGUSIA.

Bigarren.- Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den eguna gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 16a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

**3.231**

**ACUERDO 371/2006, del Consejo de Diputados de 16 de mayo, que sustituye la representación de la Diputación ante la Junta de Gobierno y Asamblea General de la Mutua Foral, la Comisión de Control del Plan de Pensiones Elkarkidetza-Diputación y la Asamblea General Elkarkidetza EPSV.**

Como consecuencia de la designación de Lourdes Martínez de Lagos Manzana como Jefa del Servicio de Recursos Humanos, resulta preciso proceder a su nombramiento en diversos Órganos y Entidades en función de la relación que tienen con dicho puesto.

Considerando que, conforme a lo dispuesto en el artículo 8 apartados 9 y 10 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, corresponde al Consejo de Diputados designar a sus representantes en las Comisiones, Organismos e Instituciones públicas o privadas.

En su virtud, a propuesta del Diputado General y previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Sustituir a don Joaquín Erviti Ortiz por doña Lourdes Martínez de Lagos Manzana, en los Organismos, Sociedades o Entidades que a continuación se mencionan (con expresión del número de orden del registro de entidades):

82.- JUNTA DE GOBIERNO DE LA MUTUA FORAL DE ÁLAVA.

89.- COMISIÓN DE CONTROL DEL PLAN DE PENSIONES ELKARKIDETZA - DIPUTACION FORAL DE ÁLAVA.

94.- ASAMBLEA GENERAL DE LA MUTUA FORAL DE ÁLAVA.

95.- ASAMBLEA GENERAL ELKARKIDETZA EPSV.

Segundo.- El presente Acuerdo entrará en vigor el día de su aprobación, sin perjuicio de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 16 de mayo de 2006.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.

## Iragarkiak

### SUSTAPEN EKONOMIKO ETA BERRIKUNTZAREN KUDEAKETA SAILA

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA

**3.150**

**DBLO segurtasun jardunari buruzko aholkularitza eta laguntzarako kanpoko enpresa bat kontratatzeko lehiaketaren esleipen iragarkia.**

1.- ERAKUNDE ESLEITZAILEA.

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y GESTIÓN DE LA INNOVACIÓN

DIRECCIÓN DE SERVICIOS GENERALES

**3.150**

**Anuncio de adjudicación del concurso para contratar la consultoría y asistencia para la externalización de la función de seguridad LOPD.**

1.- ENTIDAD ADJUDICADORA.

a) Organismo: Diputación Foral de Álava.